

noaia

**Babes Sarea
osatu da, premian
direnei laguntzeko**

**Hurbilago:
“Bakarka
etor zaitezte
erosketak egitera”**

**Ziortzako
kanpaldirako
izen-ematea ixtear da**

**Birusari aurre egiteko,
etxean geratzea onena**



*Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!*

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

GOLDWELL ELUMEN

*il
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*

mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

noaqua

Jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaqua

www.noaqua.eus

Albisteak iruditan

Elizkizunik ez

Agintariek eta osasun arduradunek hartutako erabakiei eta emandako aholkuei jarraituz, Andatzazpi Pastoral barrutiko arduradunek bertan behera utzi dituzte eliz-ospakizunak. Martxoaren 30era bitarte, mezarik ez da izango Usurbilen eta Aginagan. Koronabirusari aurre egiteko hartu dute neurria.

“Gure barrutiko elizetako ospakizun eta ekintza guztiak bertan behera uztea erabaki dugu”, hala dio Ibon Alberdi apaizak igorritako idatziak. “Honela ba, datorren martxoaren 30a bitartean ez dugu inongo ospakizunik izango Lasarte-Oria, Usurbil eta Aginagako elizetan”.

Laguntza premian direnzentzako oharra

Koronabirusari aurre egiteko, etxean konfinaturik egoteko agindua eman dute instituzioek. Etxean bakarrik eta laguntza premian daudenei laguntzeko asmoz, Parrokiak Herritarren Babes Sarearekin bat egin du: “Covid19 birusaren ondo-



“Datorren martxoaren 30a bitartean ez dugu inongo ospakizunik izango Lasarte-Oria, Usurbil eta Aginagako elizetan”.

rioz, arrisku handiko taldeko pertsona askok etxean konfinaturik geratu behar izan dute. Askok bakarrik, inor gabe”. Laguntzarik beharko balute (erosketak

egiteko, enkarguetarako...), Babes Sareak ezarri duen telefono zenbakira deitzeko aholkua luzatu nahi die Parrokiak: 688 634 512.

Laburrean

Artzabalgo erakusketa, bertan behera

Birusaren krisia piztu zen arte, Lurdes Hueta argazkilariaren lanak ikusgai zeuden Artzabalgo tabernan. Bertan behera geratu da erakusketa.

Santueneko erakusketa, bertan behera

“Inguruko paisaiak” izeneko argazki erakusketak martxoaren 29ra arte ikusgai egon behar zuen jubilatuen tabernan. Bertan behera utzi dute.

Iñorkinak-en bideoklip grabazioa atzeratu egin da

Iñorkinak taldeak “Para-Parixen” abestiaren bideoklipa grabatu behar zuen larunbat honetan Txokoaldeko Erroizpen. Bertan behera utzi dute deialdia.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeka.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Disenaua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak



Usurbilgo Udala

Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Poeta eta iraultzailea

Martxoaren batean zendu zen Ernesto Cardenal, apaiz, poeta, mistiko eta iraultzailea. Nicaraguan jaio zen 1926an eta berebiziko garrantzia izan zuen Hispanoamerika osoan, ez soilik poeta handia izateagatik, Askapen Teologiaren sortzaileetako bat izateagatik ere bai. 95 urte zituen eta Nicaraguako hiriburuan hil zen.

Teologia Mexikon ikasi zuen eta 1965ean apaiztu egin zen. Hasia zen garai hartan Askapen Teologia zabaltzen Latinoamerikan eta Cardenalek bat egin zuen mugimendu horrekin. Hitz batez esateko, mugimendu horrek pobreak defendatzen zituen eta txiroekin bat egin. Hauentzat kristau erlijioa baliabideetako bat zen borroka horretan. Hain zuzen ere, “El Evangelio en Solentiname” (Ebanjelioa Solentinamen) liburuan agertzen du

bere pentsamendu iraultzaile hori.

Urte horietan sortu zen Fronte Sandinista; bere helburua: Anastasio Somoza kargugabetzea. Talde horrekin bat egin zuen Cardenalek eta 1979an iraultza irabazi ondoren, Kultura ministro izendatu zuten. Vatikanok ez zuen onartu eta biziki haserretu zen. 1984an Joan Paulo II.ak apaizgoan aritzea debekatu zion (“suspensión a divinis”). Debeku honek indarrean jarraitu zuen duela urtebete arte. Frantzisko Aita Santuak altxa zion zigorra. 1994an utzi zuen Cardenalek mugimendu sandinista; “diktadore gisa” aritzea egotzi zion Daniel Ortega presidenteari. Lau alditan izan zen Literaturako Nobel saria irabazteko hautagai. Bere lanak beste sari asko jaso zituen, besteak beste: Iberoamerikako poesiaren Pablo Neruda saria 2009an, Sofia Erregina poesiaren saria 2012an.

Irudi bat gelditu zitzaidan betirako grabatuta, 1984an gertatua. Joan Paulo II.a Magnaguako aireportura iritsi zen eta Daniel Ortega presidentea eta bere ministro guztiak zain zeuden Aita Santuari ongietorria emateko. Honek agurtu zituen denak banan-bana eta E. Cardenalengana iritsi zenean, hau belaunikatu egin zen Aita Santuaren bedeinkapena eskatu eta eskuan muin egiteko asmoz. Orduan Wojtilak erretiratu egin zion eskua eta keinu mehatxugarritz esan zion: “errekonziliatu egin behar duzu Vatikanorekin”. Nik ez dut beste munduko memoria-rik, baina, eszena hau ez zait inoiz ahantzi.

Poesia eta iraultza, horra hor Cardenalen bi zutabeak. Poeta mistikoa, baina errealitatean oinarritutako poesia zen berea. “Desde los profetas, la poesía es anuncio y denuncia”, esaten zuen. Kosmos osoarekin lotuta sentitzen zen eta sentimendu horren me-

zulari izan zen. “El cosmos canta. ¿Oís esas estrellas? Es el amor que canta. El universo es amor. Sólo el amor es revolucionario. El odio es siempre reaccionario. Amar es eterno”. Aldi berean iraultzailea, eta hori bere kristau sinesmenak bultzatuta. “Entre cristianismo y revolución no hay contradicción” esaten zuen. Vatikanok Somoza diktadorearekin bat egin zuen bezala, Cardenal xumeen defendatzaile bihurtu zen. Beti bezala, kristauen artean bi mugimendu zeuden orduan ere: botere bila zebiltzanena (Vatikanoa) eta txiroekin bat egiten zutena. Hauen artean zegoen Cardenal. Ahaztuekin eta baztertuekin elkartu zenean aurkitu zuen gizaki ororen neurrigabeko duintasuna eta batez ere baztertuen. Apaltasunez bizi izan zen eta bere bizitzan bat egiten jakin izan zuen poesia eta kristau konpromisoa. Goian bego.

Imanol Ubeda

Maddi Aburruza

Luis Aranalde

Aritz Gorriti

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 27. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 23.

Langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak Beterri-Buruntzan

Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarra, Lasarte-Oria eta Usurbilgo Udalek elkarlanean eginiko lan eskaintza da haxe. Abenduan amaitu zen proiektuaren bigarren fasea eta, aldi horretan, eskualdeko enpresek diruz lagundutako hiru eta sei hilabete bitarteko kontratuak egiteko aukera izan dute. Orain, hirugarren eta azken fase honetan, Beterri-Buruntzako enpresek aukera honetaz baliatzen jarraitu ahal izango dute.

Lanbiderekin batera, eskualdeko udalek abian jarritako ekimena da hau.

Gutxienez, hiru hilabeteko kontratua

Egin beharreko kontratuaren gutxieneko iraupena, hala badagokio, hiru hilabetekoa izango da, lanaldi osokoa edo partzialekoa. Hala badagokio, 3.000 euroko diru-laguntza jasoko da lanaldi osoko kontratuetan, eta 1.500 eurokoa



Eskualdeko enpresek aukera honetaz baliatu ahal izango dira.

ELKARLANEAN

Lanbiderekin batera, eskualdeko udalek abian jarritako ekimena da hau

lanaldi partzialeko kontratuetan. Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak kontratatzeagatik, diru-laguntza horiek handiagoak izan daitezke.

Informazioa, udaletxeetan

Kontrataziorako laguntzei buruzko informazioa udalen webguneetan eta udaletako

sail edo bulegoetan aurki daiteke.

Kontratuak egiteko epea: apirilak 1

Kontratuak egiteko azken epea apirilaren 1ean amaituko da. Kontrataziorako laguntzen eskaeren aurkezpena, aldiz, apirilaren 15ean amaituko da.

Diru-laguntza eskabideak, kasu guztietan, Andoaingo Udalaren enplegu-arloan – Villa Urigain– aurkeztu beharko dira: La Salle kalea 6 (943304221).

Udalaren lan deialdietako izen emateak, bertan behera

Batetik, udal liburuzain laguntzaile postua betetzeko lehiaketa-oposizio sistema bidez betetzeko Udalak eginiko deialdiko izen ematea bertan behera utzi du Udalak, koronabirusak eragindako alarma egoera gainditu artean behintzat. Gerora zabalduko da berriz izen ematea. Lanpostu honetan, erabiltzaileari arreta eskaini beharko da, zerbitzua ongi erabiltzen dela ziurtatu, liburuak eta maileguak kudeatu, funtsen erosketak, katalogazio eta sailkapenean lagundu, irakurzaletasuna bultzatu.

Udal brigadako lan-poltsa

Operario lan-poltsa bat lehiaketa-oposizio sistema bidez sortzeko deialdia plaza-ratu zuen Udalak martxoaren 13an. Deialdi honetara eskabideak aurkezteko epea ere bertan behera geratu da, alarma egoera igaro arte.

Informazio gehiagorako: usurbil.eus

Prebentzio moduan, sagardotegiak hamabost egunez itxita

COVID-19 birusaren beldur, Eusko Jaurlaritzak Osasun Alarma ezarri zuen aurreko astean Euskal Autonomia Erkidegoan. Sagardogile sektoreak, Osasun Sailaren zein Eusko Jaurlaritzaren

gomendioei jarraituz, ondorengo erabakia hartu zuen: “Prebentzio neurri moduan 15 egunez bazkari eta afari zerbitzuak etetea sagardotegietan.

Harreman eta komunika-

zio zuzena mantenduko dugu egoera honen aurrean zentzuz jokatzuz, gure bezero eta langileen osasuna kontutan hartuta.

Sektoreak hartzen dituen erabakien berri ematen joango gara”.



Txotx garai betean ziren sagardotegiak.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER Usurbil

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Patxi

bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

Jendaurreko harrera fisikoa ixtea erabaki du Udalak

Nabarmentzeko moduko eragina izaten ari da COVID19 koronabirusa martxoaren 13az geroztik. Hein batean jai egun baten itxurako ostirala izan genuen aurrekoa, ezohikoa zalantza izpirik gabe.

COVID-19 koronabirusari aurre egiteko Usurbilgo Udalak osaturiko Prebentzio Mahaiak herri eragileekin, hezkuntza komunitatearekin nahiz jubilatutako elkarteekin bezperan adosturiko neurriak gauzatzen hasi ziren martxoaren 13an.

Aginaga, Usurbil eta Santueneko jubilatutako elkarteak itxita. Artzabal hutsik aurkitu genuen. Udarregi Ikastolako eraikin gorriko pertsianak jaitzita, langileak lanean ari ziren gelakoak izan ezik. Agerialden antzeko. Ikasle eta gurasoen eguneroko mugimendurik ez. Martxoaren 13az geroztik Usurbil, Zubietara eta Aginagako ikastetxeak itxita daude, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren aginduz. Gutxienez 15 egunerako, martxoaren 13tik zenbatzen hasita.

Edozein kasutan, Hezkuntza Sailatik ohartarazi dutenez, “eskola-jardueraren aldi baterako etenaldia ez da eskola-jardueraren etenalditzat hartu behar; aitzitik, ahalegina egin behar dugu ikasleek egunero etxean ikasteko ohiturari eutsi diezaioten. Horregatik, ikastetxeetako langileak beren ohiko ordutegian egotea erabaki da”. Gaineratu dutenez, etenaldi honetan zehar, “irakasleei da-



Jendaurreko harrera fisikoa ixtea erabaki zuen aste hasieran Udalak, Prebentzio Mahaiaren bilkura ostean. 9:00-14:00 artean telefonoz bideratuko dute harrera zerbitzua, 943 371 951 telefono zenbakian.

“EZ ATERA ETXETIK”

Osasun zerbitzuetatik honako mezu hau heldu zen martxoaren 13an NOAUA!ra.

Argi zioen: “ez atara etxetik ezinbestekoa ez bada, eta bereziki umeak ez atara. Egoera oso serioa da”

gokie material didaktikoa prestatzea eta ikasleen eskura jartzea, ahal den neurrian, modu ez-presentzialean lan egiten jarraitu ahal izan dezaten. Horretarako, Sailak alderdi horiek argitzeko instrukzioa emango du”.

“Egoera oso serioa da”

Etxean ohiko bizimodua egin dezakete ikasleek, baina adi; osasun zerbitzuetatik honako

mezu hau heldu zen martxoaren 13an NOAUA!ra. Argi zioen: “ez atara etxetik ezinbestekoa ez bada, eta bereziki umeak ez atara. Egoera oso serioa da”.

Udal jarduna

Oiardo Kiroldesia ere itxita aurkitu genuen martxoaren 13an. Kalera begira den gimnasioa hutsik zuten. Kaxkora jaitzita, udal eraikinak itxita ziren. Itxita kiroldesia, Potxoenea, liburutegia, eguneko arreta, Harane, Kzgunea, Etumeta AEK euskaltegia, Gaztelekua, ludotekak, yogako lokala...

Jendaurreko harrera fisikoa ixtea erabaki zuen aste hasieran Udalak, Prebentzio Mahaiaren bilkura ostean. 9:00-14:00 artean telefonoz bideratuko dute harrera zerbitzua, 943 371 951 telefono zenbakian.

Udal-langileen kontziliazioa errazteko lanetan ari dira. Telalana sustatzeko bidea ere jorratzen ari dira.

Bus-taxi zerbitzua, etenda

Gizarte zerbitzuen kasuan, “lehendik hitzartuak zituztenak telefonoz egiten saiatuko dira, ahal duten neurrian. Gizarte langileek etxetara hainbat bisita egin ohi dituzte, eta ezinbestekoak ez badira, aste honetan edo hurrengoan egingo dituzte”. Guneotara sartzeko, eskuak xaboiarekin garbitzeko bitartekoak jarri ditu Udalak. Oraingoz, Udalaren eskumenekoa ez den bus-taxiaren zerbitzua aste hasieratik etenda dago.

Hilabete amaieran, balorazioa

Martxoaren 13az geroztik hurrengo hamabostaldian herrian antolatutako zeuden kultur eta kirol ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira, hilabete amaierara arte alegia. “Horrek guztiak martxoaren amaieran jartzen du arreta: orduan baloratu beharko da momentuko egoera zein den, eta apirileko ekitaldiekin zer gertatuko den”, ohartarazi du Usurbilgo Udalak.

Testuinguru honetan, bi deialdi Udaletik; batetik, Osakidetza emandako aholkuak aktiboki segi eta betetzea, eta lasaitasunerako deia plazaratu du. “Neurri gogorrek diren arren, erabaki guztiek prebentzioa helburu dutela nabarmendu du udal-gobernuak”.

Udalaren bandoa

Usurbildar hori: COVID19 birusa dela eta, Usurbilgo Udalak hainbat neurri hartu ditu prebentzio gisara, Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetza ezarritako irizpideei jarraituz. Zahar etxe guztiak itxeko agindu du Osakidetza,

eta Hezkuntza Sailak ikastetxe guztiak itxeko agindu du hamabost egunetarako. Udalak irizpide hori zerbitzu publiko guztietara zabaltzea erabaki du: Kiroldesia, Potxoenea, liburutegia, Harane, Kzgunea, AEK, eguneko arreta... Aldi

baterako itxiko dira, kontrako irizpide edo gomendioak jaso arte. Halaber, hurrengo hamabost egunetan egitekoak ziren kultur eta kirol ekitaldi guztiak ere bertan behera geldituko dira.

Hori hala izanik ere, lasai-

tasunerako deia egin nahi du Udalak, eta Osakidetza higienarako emandako irizpideak modu aktiboan jarraitzeko eskatu die herritarrei.

Agurtzane Solaberrieta Mesa, Usurbilgo alkatea

Aldaketak osasun etxeetako jendaurreko zerbitzuetan

Osakidetzaren ohar garrantzitsua; ospitalean zein osasun-zentroren batean hitzordua eskatua duzuenoi eskatzen zaizue “ez joateko hitzordu horretara eta etxean itxaroteko, osasun zentroa bera edo onkologikoa haiekin telefonoz harremanetan jarri arte”. Osasun etxeetako langileek ahal duten heinean telefonoz kudeatuko dituzte kontsultak, “eta, beharrezkoa bada, aurrez aurreko hitzordua ezarriko da zentroan”. Osasun etxeetan premiazko odol emateak baino ez dira egingo, “eta programatutako proba osagarri guztiak bertan behera utziko dira (elektrokardiogramak, espiometriak ...).

Aldiz, programatutako sendaketak mantenduko dira, “eta hitzartuta dauden erizaintzako beste prozedura batzuen kasuan, osasun-zentroaren deia jasoko dute herritarrek”.

Webgunetik telefono bidezko kontsultak bakarrik eskatu ahaliko dira.



Osasun etxeetako langileek ahal duten heinean telefonoz kudeatuko dituzte kontsultak, “eta, beharrezkoa bada, aurrez aurreko hitzordua ezarriko da zentroan”.

OSAKIDETZAREN DEIA

Arnas sintomatologikoarekin lotutako kontsultetarako, 900 20 30 50 telefono zenbakira deitu

Kaltetutako zerbitzuak

Bertan behera geratu diren hainbat zerbitzuren berri eman dute. “Ospitaleetan bertan behera geratzen dira kontsulta

espezializatu, eguneko ospitale kirurgiko eta kirurgia programatu guztiak, kirurgia onkologikoa, Onkologia Medikua, Onkologia Erradioterapiakoa, Onkologia Hematologikoa eta Onkologia Pediatrikoa tratamenduan dauden gaixoen kontsultak izan ezik. Era berean, eguneko ospitale mediko eta onkologikoen eta abian diren erradioterapia-saioen jardura mantentzen da”.

Nora deitu?

Gogoan izan, arnas sintomatologikoarekin lotutako kontsultetarako 900 20 30 50 telefono zenbakia zabaldu du Osakidetza. “Horrelako egoera baten aurrean erakutsi duten konpromisoagatik, heldutasunagatik eta erantzukizunagatik, herritarrei gure esker ona erakutsi nahi diegu, normaltasunera ahalik eta lasterren itzultzea espero dugu”.

Murrizketak garraio zerbitzuetan

Bus-taxia

Etenda dago aste hasieratik.

Lurraldebus

■ Lurraldebusek ere murriztu egin ditu zerbitzuak astelehenetik ostiralerako zerbitzuak, %40-%60 artean.

■ Ospitaleetarako zerbitzuak aldiz %100ean mantenduko ditu.

Informazio gehiago: 900300340. lurraldebus.eus

T2 bus zerbitzua

■ Aginaga, Usurbil eta ospitaleak zerbitzuan soilik azken zerbitzua, Aginagatik 22:37an abiatzen dena ezabatu dute.

T6 bus zerbitzua

Usurbil eta Hernani lotzen ditu.

■ Usurbildik abiatzen diren ondoko zerbitzuak ezabatu dira: 10:15, 11:15, 12:15, 16:15, 17:15.

■ Hernanitik abiatutako ondoko zerbitzuak ezabatu dira: 10:45, 11:45, 15:45, 16:45.

■ Lasartetik Urbilera, 12:30ean zerbitzua izango da.

■ Lasartetik Zubietara, 18:00etan.

UK09 bus zerbitzua

Urola Kostako zerbitzuan murrizketa ugari.

■ Usurbildik Donostiara orduotan, astelehenetik ostiralera: 7:10, 8:10, 12:15, 13:15,

14:15, 15:15., 17:15, 18:15, 19:15, 21:15.

■ Usurbildik Oriora: 8:15, 9:15, 13:15, 14:15, 15:15, 16:15, 18:15, 19:15, 20:15, 22:45.

Euskotren

Tren zerbitzuak erdira murriztu dira.

■ Orduotan izango da tren zerbitzua Usurbildik Donostia aldera: 6:24an lehenengoa. Bigarrena 7:54an, eta hortik aurrera orduoro 22:54ak arte.

■ Usurbildik Orio aldera: lehenengoa 5:34an. Hortik aurrera orduoro 21:34ak arte.

Informazio gehiagorako:

euskotren.eus / 944 333 333.

Errenta aitorpenean atzerapenak

Errenta aitorpen mekanizatuak aurkezteko epearen hasiera atzeratu egingo da. “Data zehazten denean, jakinaraziko da”.

Autolikidazio proposamenik “egiten ez zaizen zergadunei gonbita luzatzen zaie aitorpenen aurkezpenean internet bidezko modalitatea erabiliz egiteko”.

Proposamen eta internet bidezko modalitateetan eta ondare aitorpenak aurkezteko epea aurreikusi bezala zabalduko da, baina uztailearen 29ra arte luzatuko da.

Informazio gehiago:

gipuzkoa.eus / 943 113 000.

Itxaso Orbegozo, Bruselatik: “Itzultzeari ez diot zentzu handiegirik ikusten. Arrisku taldeekin lotura gehiago dut etxean, hemen baino”

Orriotan, ezaguna egin-go zaizue Itxaso Orbegozen sinadura. Iaz NOAA!n hasi zen lanean. Otsailaren amaieratik baina, Erasmus modukoa egiten ari da Bruselan. Koronabirusari aurre egiteko konfinamendua bertara ere iritsi da. Oraingoz, Bruselan segitzeko asmoa duela adierazi digu.

NOAA! Nola zabilta Brusela aldean? Eskolak hartzen ari al zarete oraindik?

Itxaso Orbegozo. Niri momentuz aste honetako praktikaldia eten egin didate, baina datorrenean jarraitzeko asmoarekin. Argazkilaritza estudio bat izanik bezeroen erabakiaren arabera da lana izatea edo ez izatea. Nirekin ikasle erresidentzian bizi direnei klaseak kendu dizkiete eta gehienak etxera joan dira. 13 bat elkartu ohi ginen eta hiru baino ez gara geratu. Beste biak erizaintza eta fisioterapeuta ikasketei lotutako praktikaldia egiten ari dira, eta momentuz ospitalean lanean jarraitzeko esan diete. Astelehenean joango dira lanera, eta kontrarik esaten ez badiete, betiko martxan jarraituko dute.

Nola bizi duzu egoera hau? Eta zure etxekoek?

Ni egia esan nahiko pertsona lasaia naiz eta ez nago egoerarekin beldurtuegi. Dauka-



Itxaso Orbegozo Bruselan da egunotan. Lagunekin batera ageri da argazkian. Ezkerretik hasita hirugarrena da. Konfinamendua hasi aurrekoa da irudia.

ITXASO ORBEGOZO

“Praktikaldia eteten ez didaten bitartean, hemen jarraitzeko asmoa dut. Denborak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiek zehaztuko dute nire Bruselako egonaldia”

dan beldurrik handiena aipatu ditudan bi lagunak alde egin

eta bakarrik geratu behar izatea da. Hala gertatzen bada egingo ditut lagunak, ez da beste munduko arazoa. Etxera itzultzeari ez diot zentzu handiegirik ikusten, han arrisku taldeekin lotura gehiago baitaukat hemen baino. Hemen asko jota lagunak kutsatuko nituzke, eta nire adinekoak izanik eta osasun arazorik ez dutenez, gaitza denok batera pasatuko genuke berrogeialdian egonda. Etxekoek ez di-

date ez itzultzeko ez geratzekorik esan, praktikak kendu ez dizkidatenez ez diogu buelta handiegirik eman gaiari. Haiek lasai daude eta ni ere bai. Praktikaldia eteten ez didaten bitartean hemen jarraitzeko asmoa dut, beraz. Denborak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiek zehaztuko dute nire Bruselako egonaldia.

Han dena zabalik al dago edo hemen bezala, hasi al dira dendak-eta ixten?

Dendak eta tabernak ostiral gauean itxi zituzten berrogeialdian hasteko. Guk azken egun hori aprobetxatu genuen janaria eta edaria erosteko, baina supermerkatuko produktu guztiak hartu gabe, ez da mundua amaituko-eta.

Alde egitea erabaki dute askok horregatik, eta tira, hemen geratzen garenoi barazki eta frutak eman dizkigute. Beraz, alde horretatik inolako arazorik ez. Mahai-jokoren bat erostea beranduegi bururatu zaigu, baina hilabete hemen egin behar dugunez, ideia ederra izan zitekeen. Kaleetan ere askoz ere jende gutxiago dago eta maskarilak ikustea ere ez da horren harritzekoa. Hilabete honetarako zereginak aurkitzea izango da zailena zentzu horretan, kalera atera gabe ez daukagu gauza gehiegi egiteko. Modulu amaierako lanari heldu beharko diogu modu serioan.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Babes Sarea osatu da, premian direnei laguntzeko

65 urtetik gorako herritarrei, elbarritasunen bat dutenei, haurren zaintzarako arazoak dituztenei eta gaixorik edo isolatuta daudenei laguntzeko osatu dute Herritarren Babes Sarea. Telefono bat jarri dute laguntza behar duten herritarrek erabiltzeko: 688 634 512.

Covid19 birusak eragin duen egoeraren aurrean, premian diren herritarrei laguntzeko Babes Sarea jarri dute martxan. Herriko hainbat boluntario, Hurbilago eta Udala batu dira zeregin honetan. “Udalean sortutako Prebentzio Mahaia urgentziaz bildu zen larunbatean, osoko bilkuren aretoan, koronabirusari eta horren ondorioei aurre egiteko neurri berriak adosteko”. Ohi baino jendetsuagoa izan zen, udaleko hiru taldeetako ordezkari politikoez eta udal-langileez gain, Hurbilagoko ordezkariak eta zaintza eta adinekoen oinarritzako behar sozialei erantzuteko osatzen ari den herritar boluntarioen ordezkariak ere parte hartu baitzuten: “pandemiari herri bezala erantzuteko lehenengo urratsa egin zuten”, udal iturriek aditzera eman dutenez. “Lau orduko bileran, herritarren babes sarea nola kudeatu, saltokietan prebentziorako zein neurri hartu eta horri guztiari erantzuteko udaleko gizarte zerbitzuak nola antolatu erabaki zuten”.

Boluntario sarea

Batetik, boluntario sare bat osatzen ari dira Whatsapp talde batean: ondoko estekan klik eginda automatikoki sartzen da telefonoa talde horretara [https://chat.whatsapp.com/DXLvvdhblISFag61YIONSA]. “Taldea horretako kide guztiei galdetegi bat betetzeko eskatuko zaie, zertarako prest dauden eta euren disponibilitatea jakiteko”.

Gizarte Zerbitzuak, martxan

Bestetik, udaleko Gizarte Zer-



Telefono bat jarri dute laguntza behar duten herritarren esku: 688 634 512.

BITARTEKOAK, UDALAREN KONTURA

“Udalak bere esku dauden bitarteko guztiak utziko ditu boluntarioen esku”

bitzuetatik kudeatuko duten telefonoa ahalik eta gehien zabalduko dute, “hainbat medio- ren bitartez, ahalik eta herritar gehienengana iristeko; herritarrei dei egin diete beste herritar batek behar duela uste izanez gero haien ordez dei dezaten. Hauxe da zenbakia: 688 634 512, eta, oraingoz, 08:00etatik 14:00etara egongo da martxan”.

Udalak “bere esku dauden bitarteko guztiak utziko dituela boluntarioen esku, zerbitzuak ematen hasten direnean prebentzio neurri guztiak betetzen dituztela bermatzeko”.

Lagunduko diren kolektiboak:

Ondoko kolektiboek lagunduko diete boluntarioek:

- 65 urtetik gorako herritarrei.
- Elbarritasunen bat dutenei.
- Haurren zaintzarako arazoak dituztenei eta gaixorik edo isolatuta daudenei.

Norberak ez, baina arazoak izan ditzakeen beste herritarren baten berri eman nahi dutenek ere dei dezakete telefono horretara.

Ondoko beharrei erantzungo diete boluntarioek:

- Kontziliazio arazoak tarteko haurrak zaintzeko laguntza be-

har dutenei.

- Oinarritzako elikagaiak edo farmaziako botikak erosteko laguntza behar duten 65 urtetik gorako herritarrei.

Zubietan ere elkarlaguntza sarea osatu dute

Covid19aren aurrean, elkarlaguntza sarea osatu da Zubietan. Zubietako Herri Batzarrak ohar hau zabaldu du: “Etiket ezin zarela ateratu? Lasai, zerbaiten beharra baduzu: Sendagairen bat; jakiren bat; laguntza bereziren bat. Zubietako Herri Batzarra, behar hauei aurre egiteko antolatu da. Behar hau baldin baduzu edo honen beharra ezagutzen duen norbait ezagutzen baduzu, deitu ondoko telefono zenbakira: 616 324 878”.

Hurbilago: “Bakarka etor zaitezte erosketak egitera”

SALTOKI HONETAKO LANGILE GAREN ALDETIK, HONAKOA ESKATU NAHI DIZUEGU:

- ✓ Bakarka etor zaitezten erosketak egitera
- ✓ Kolektibo zaurgarrienetako kideak etortzea saihestu dezazuen
- ✓ Ez zaitezten hurrekin etorri erosketak egitera
- ✓ Eskuak garbi ditzazuen etorri aurretik
- ✓ Gainontzeko erosleekiko eta gurekiko 1,5 metroko distantzia utzi dezazuen
- ✓ Eztula eginez gero, ukondoarekin estali zaitezten
- ✓ Txartelarekin ordain dezazuen, diruarekin beharrean, kutxazain dagoenarekiko kontaktua murrizteko

GOGOAN IZAN GUK EZIN DUGULA ETXEAN GELDITU, HERRITARRAK HORNITU BEHAR DITUGULAKO. LAGUN IEZAGUZU GURE LANA AHALIK ETA ONDOEN EGITEN, GURE OSASUNA ERE KONTUAN HARTUZ. ESKERRIK ASKO!

EROSKETAK EGITEKO LAGUNTZA BEHAR BADUZU, EDO BESTE NORBAITEK BEHAR DUELA USTE BADUZU, DEITU HERRITARREN BABES SAREARI: 688 634 512.

hurbilago

Euren bezeroek jarraitu beharreko gomendioen kartelak egin ditu Hurbilagok. Horrez gain, komertzio guztietako sarreran eskuak desinfektatzeko

produktuak jarriko dituzte, bezero guztientzako, eta metro eta erdiko distantzia errespetatzeko seinaleak jarriko dituzte lurrean.

Kultur eta kirol ekitaldiak, bertan behera

Aurrekaririk ez duen egoeraren aurrean garelako nabari da. Herriko bizitza eten du COVID-19 koronabirusak. Eguntarako antolatutako zeuden kirol eta kultur ekitaldiak bertan behera geratu dira, bai behintzat datorren bizpahiru asteetarako iragarriak zeuden hainbat hitzordu.

Musika aste betean zen Zumartek igandera arte antolatua zuen 16. Soinurbilen edizioa bertan behera geratu zen. Horrekin batera, eta “Zumartek Musika Eskolak COVID-19 koronabirusak EAEko lurralde osoan izandako aurrerapenaren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailak emandako jarraibideak kontutan hartuz eta gaur Udalarekin egunean zehar izandako bileren ondoren, prebentzio neurri bezala” honakoa erabaki zuen baita. “Datozen 15 egunetan Zumartek Musika Eskolan ez da klaserik izango”.

Dantza Eguna, bertan behera

Martxo amaierakoak, eta apirila hasierako zenbait hitzordu ere bertan behera geratu dira. Orbeldi Dantza Taldeak esaterako, apirilaren 4an ospatzekoa zuen 8. Dantza Eguna, eta bihara-



Bere entsegu saio guztiak bertan behera uztea erabaki du Orbeldi Dantza Taldeak.

ZUMARTEN KLASERIK EZ

Zumartek aurreko igandera arte antolatua zuen Soinurbilen edizioa bertan behera geratu zen. Horretaz gain, “datozen 15 egunetan Zumartek Musika Eskolan ez da klaserik izango”

munerako iragarria zuen 2. Dantzari Txiki Eguna ez ospatzea erabaki du. “Egoera normaltasunera itzultzean erabakiko da beste egun batean ospatuko diren”, iragarri dute Orbelditik. Horrekin batera, “bere entsegu saio guztiak bertan behera uztea

erabaki du, eskuduntza duten autoritateek besterik esaten ez duten artean”.

Mezu berean gaineratzen dutenez, “egoera ulertuko duzuelakoan, zuen laguntza eskertzen dugu. Bien bitartean, lasaitasuna mantentzera eta osasun zerbitzuek emandako gomendioak jarraitzera deitzen zaituztegu. Edozein zalantzetarako betiko bideak irekita dituzue”.

Usurbil F.T.

Usurbil Futbol Taldeak COVID-19 birusa dela eta osasun eta kirol arloko agenteei emandako aholkuei jarraituz bere ekimen eta entrenamendu guztiak etetea

erabaki zuen epe mugagabe batez, “agente hauetatik aurrakoa aholkatu bitartean. Egoera ulertu eta zentzutasunez jokatzeko eskatzen dugu”.

Ziortza

Ziortzak ere bere jarduna eten zuen joan den ostegunetan. “15 egunetako ekintza guztiak bertan behera utziko ditu abisu gehiagoren ezean”. Aldaketarik balego, “egoerak aurrera egin ahala bestelako zerbait balego abisua pasako da”, ohartarazi dute. Halere uda parterako antolatua duten kanpamendurako izen emateak zabalik segiko duela gogorarazten dute Ziortzak. “Aurre izen emateak aurrera jarraitzen du, martxoaren 13tik 22ra arte”.

NOAUA!

Kultur Elkarteak iragarriak zituen Laburbira eta Lur eta Ametsen proiektuak bertan behera geratu dira.

Kultur elkarteko egoitza itxita egongo da. Jendaurreko zerbitzua telefonoz (943 360 321) nahiz emailaz bideratuko dugu (elkartea@noaua.eus).

Web orri eta sare sozialak elikatzen jarraitu asmo dugu. Hurrengo martxoaren 27ko astekaria prestatzen gabiltza jada.

Beteko ez diren hitzorduen zerrenda

Usurbil herri bizi asko dugula utzi du agerian koronabirusak. Asteotarako ekitaldi mardoa geratu da bertan behera. Besteak beste, honako hauek:

- Usurbil F.T.-ren entrenamendu eta ekimen guztiak.
- Usurbil K.E.-ren entrenamendu eta partidak.
- Eskola-kirola (Zirimara egitasmoa) eta federaturiko taldeen hitzorduak.
- Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko txapelketa guz-

tiak.

- Zumartek Musika Eskolaren 16. Soinurbil Musika Astea.
- Sutegi udal liburutegian antolatua zuten Maider Usabiagaren Alpeetako bidaiaren kontakizun saioa.
- Emakumeen Etxearen inguruko aurkezpen saioa.
- Anerreka Ingurumen Elkarrekin antolatua zuen erreusaren karakterizazio ekitaldia.
- NOAUA! Kultur Elkarteak antolatuak zituen Laburbira

eta Lur eta Ametsen proiektuak.

- Sagarrondotik Sagardora ikastaroko saioa.
- Hitz Ahoren “Emozioak familian, helduen eta haurren emozioak” hitzaldia.
- Usurbilgo Larrialdi Mahaiaren martxoaren 17ko Sute gikiko asanblada. “Izan ere, errausketaren aurkako gure argudio nagusia bezala, herriararen osasuna da lehenetsi beharrekoa”. Zuzenean nahiz

NOAUA! bidez iragarriko dute data berria. “Milesker zuen pazientzia eta konpromisoagatik”.

- Inorkiñak taldearen Txokoaldeko bideo klip grabazioa.
- Martxoaren 22ko munduko dantzen erakustaldia Sutegin.
- Martxoko azken larunbateko kantu-jira.
- Apirilaren 4 eta 5eko Dantza Eguna eta Dantzari Txiki Eguna.

“Farmaziok ez dugu itxiko”

Iturralde farmazian lanpetuta egon dira egunotan. “Tentsioa dago”. Aurreko larunbatean izan ginen bertan, eta hori izan zen esan ziguten lehendabiziko gauza. “Telebistan esaten dena ikusita, jendea urduri dago. Urduriegi”. Eskuetarako alkoholodun likidoa amaitu egin zitzaizen eta maskarilarik gabe geratu ziren. Baina datozen egunetan ere, farmaziek irekita jarraituko dutela ohartarazi ziguten.

Genero aldetik eskasiarik ez dute baina produktu batzuekin tentuz ibiltzeko aholkua zabaltzen ari dira. “Parasetamola ez da agortu baina demanda igo da ikaragarri. Jende batek badu aurretik etxean, baina hala ere gehiago eskatzen digu. Hornitzaileek jada ez digute nahi adina bidaltzen. Muga batzuk jarri dizkigute. Egon badago, baina jendea hasten bada neurririk gabe eskatzen...”.

Eskuetarako alkoholodun likidoa ordea, larunbatean agortuta zuten. “Guk geuk prestatu dugu baina orain materia prima gutxi geratzen zaigu. 96 graduko alkohola bukatu egin zaigu, edukiontzi txikiak eta handiak ere bai... Pentsa, guretzat ere bukatu egin da. Eta



“Tira, zentzuz jokatzeko duen jendeak metroko distantzia mantentzen du. Baina bada umea mostradorean ipintzen duenik...”, adierazi ziguten kezkaturik Iturralde farmazioako kideek.

ITURRALDE FARMAZIA

**Esamesak esames,
“guk ez dugu itxiko.”**

**Aurrez aurre
edo leihatilatik, baina
farmaziek irekita
jarraituko dute”**

guk beharko dugu gure higienarako, ezta?”.

Bezeroei aholkua

Maskarilak ere faltan zituzten larunbat eguerdian. Jendaurrean aritzen diren langile guztiak bezalaxe, kezka pitin bat badute. Baina ez dute neurri berezirik hartu oraindik. “Tira, zentzuz jokatzeko duen jendeak metroko distantzia mantentzen du. Baina bada umea mostradorean ipintzen duenik...”.

Aurrez aurre edo leihatilan

Datozen egunetan farmazian jarraituko dute lanean. “Oso beltza jartzen bada asuntua, guardiako leihatilatik dispensatuko dugu. Botikarien Kolegioak pautu batzuk bidali dizkigu eta horretarako aukera badago”. Esamesak esames, “guk ez dugu itxiko. Aurrez aurre edo leihatilatik, baina farmaziek irekita jarraituko dute”.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, bertan behera

Eusko Legebiltzarrerako apirilaren 5eko hauteskundeak atzeratzea erabaki dute Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak eta bozetara aurkeztutako hautagaitza nagusien ordezkariak.

“Koronabirusaren krisia dela-eta botoa emateko bal-

dintzarik ez dagoela iritzita”, astelehen eguerdian aditzera eman zuten.

Data berria, zehazteko

Espainiako Estatuko alarma egoeraren —bi astea eman du— eta EAEko osasun larrialdiaren ondoren egin beharko hauteskundeak, “ahal den lehen igandean”.

Michelin itxi egin dute, prebentzio neurri gisa

Aste hasieran hainbat enpresa handi ere itxi hasi ziren; CAF, Irizar... Tartean da Michelin.

Usurbilgo eta Gasteizko plantak ixtea erabaki zuten, estatuko gainerako lantegiak ere bai. Oraingoz zortzi egunez, prebentzio neurri gisa. Batetik, langileen eta haien



Oraingoz zortzi egunez itxiko dute lantegia.

familiaren osasuna bermatu eta koronabirusaren hedapena geldiarazten laguntzeko.

Zein dira sintomak? Eta zer egin dezaket sintomak baditut?

Sintoma ohikoenak eztula, ez-tarriko mina, sukarra eta aire faltaren sentazioa dira.

Kasu gehienak sukarra duen arnas infekzio bati dagozkio. Larritasun handiagoko kasu batzuk egon daitezke, oso gutxitan infekzioak pneumonia eragin dezake; kasu horietan, pazienteak arnasa hartzeko zailtasun handia du eta ai-

re-faltaren sentazioa, sukar altuarekin. Tratamenduari erantzuten ez dioten paziente larrietan, eta, bereziki, aurretik gaixotasunen bat badute, konplikazio larriagoak izan ditzakete, eta hil ere egin daitezke. Kasurik larrienak, normalean, adinekoetan ematen dira, edo beste gaixotasunen bat dutenen artean, hala nola

bihotzekoak, birikak edo immunitate-arazoak.

Zer egin?

Arrisku eremu batera bidaiatu badut, ez joan osasun-zentrora, etxean geratu, 900 20 30 50 telefonora deitu, eta beste pertsonengandik 2 metroko distantzia mantendu.



Eztula, eztarriko mina, sukarra eta aire faltaren sentazioa dira sintoma ohikoenak.

Zer egin dezaket babesteko?

■ Garbitu eskuak sarritan.
■ Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin. Bota zapia berehala eta garbitu eskuak alkohol ez egindako eskuetako desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin.

■ Eztula edo doministiku egin eta sukarra duten pertsonetik metro batera egon gutxienez.
■ Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.
■ Eskuen ukitze-eremuetan garbitasuna areagotu, etxean zein leku publikoetan.

Nola hedatzen da birusa?

Nahiz eta ez den zehazki ezagutzen, antzeko birusek eragindako beste infekzio batzuekiko analogiagatik, badirudi kutsatutako animaliekiko kontaktuaren bidez edo gaixoaren eztularekin eta doministikuarekin sortzen diren arnas jariaki-

nekiko kontaktu estuaren bidez transmitituko litzatekeela.

Sekrezio bidez

Sekrezio horiek beste pertsona bat kutsatuko lukete haren sudurra, begiak edo ahoa ukituz gero.

Zer nolako arriskua du birusak?

Behin pertsona bat koronabirusak kutsatzen duenean, sintomak gripearen oso antzekoak izan ohi dira, hau da, eztula, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna edo arti-

kulazioetako mina. Kutsatutako pertsonen heriotza-tasa % 2 da. Horrek esan nahi du birusa hartzen duten pertsona gehienak sendatu egiten direla.

Nola jakin susmagarria naizen?

Gaur-gaurkoz, hauxe da gomendioa: gaixotasuna transmititzeko gune batera joan bazara eta arnas sintomak badituzu, hala nola eztula, sukarra, eztarriko mina edo

arnasa hartzeko zailtasuna, etxean geratu behar duzu eta Osasun Kontseilura deitu. Hauxe da markatu beharreko telefono zenbakia: 900 20 30 50.

Baliagarriak al dira maskarilak?

Maskarek funtzio bat betetzen dute: birusaren hedapena saihestea. Horregatik, maskara jarri behar duena arnas infekzioaren sintomak dituen da. Pertsona bat sintoma horiekin osasun zentroren batera joaten denean maskara jarri behar

du, inguruan dauden gainetako pertsonak ez kutsatzeko. Adinekoekin edo immunodeprimetuekin kontaktua duten pertsonen maskarak jartzea ere gomendagarria da. Edonola ere, neurriak eraginkorrena eskuak garbitzea da.

Zer egin transmisio eremuetan izan banaiz?


Bidaiatik itzuli ondorengo bi asteetan arnas-infekzio bat izan daitezkeen sintomak izanez gero, hala nola, sukarra, eztula edo aire-faltaren sentazioa, etxean edo ostatuan geratu behar duzu eta berehala jarri behar

duzu Osasun Aholkuarekin harremanetan (900 20 30 50 telefono zenbakira deituz). Osasun-zerbitzuek ebaluatuko dute zure osasun-egoera, bidaiaren aurrekaria eta koronabirus-kasuekin kontakturik izan duzun.

Zenbat denbora irauten du COVID-19 birusak azalera batean?

Ez dago argi zenbat denbora irauten duen COVID-19 birusak gainazal batean, baina badirudi beste koronabirus batzuek bezala jokatzen duela. “Egindako azterketek (COVID-19 birusari buruz eskuragarri dagoen aurretiazko informazioa barne) koronabirusak azalera batean ordu gutxi batzuetatik egun batzuetara arte iraun dezaketela adierazten dute”, Osakidetza-aren iturrietatik jakin dugunez. Eguraldia, gainazal mota, tenperatura edo ingurunearen hezetasunak eragina dute iraupenean.

“Gainazal bat kutsatuta egon daitekeela uste baduzu, garbitu desinfektatzaile komun batekin, birusa hiltzeko eta zeure burua eta besteak babesteko”. ohartarazi du Osakidetza. “Garbitu eskuak alkohol- edo desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin. Ez ukitu begia, ahoa edo sudurra.



Eguraldia, gainazal mota, tenperatura edo ingurunearen hezetasunak eragina dute koronabirusaren iraupenean.

COVID-19 KORONABIRUSA

“Egindako azterketek zera adierazten dute: koronabirusak azalera batean ordu gutxi batzuetatik egun batzuetara iraun dezakeela”

Zenbat irauten du inkubazio-aldiak?

Inkubazio-aldia da infekzioaren eta gaixotasunaren sintoma klinikoaren agerpenaren arteko denbora-tartea. Gaur egungo kalkuluen arabera, inkubazio-aldia 1 eta 14 egun bitartekoa da; batez beste, 5-6 egun. Estimazio horiek eguneratzen joango dira, datu gehiago es-

kuratu ahala. Koronabirusak eragindako beste gaixotasun batzuei buruz eskura dagoen informazioan oinarrituta (SARS, besteak beste), inkubazio-aldia 14 egunekoa izan daitekeela kalkulatu da. Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen du baieztatutako kasuen kontaktuen jarraipena 14 egunekoa izatea.

Osasun Saila: “Eskuak arreta handiz garbitu”

Osasun Sailak herritarren laguntza eskatu du egunotan, koronabirusaren zabalkundea saihesteko gomendioak (sinpleak bezain garrantzitsuak) gogoraraziz:

- Eskuak arreta handiz garbitzea, eta are gehiago arnas sintomak dituztenek. Ez dugu ahaztu behar kutsapenen % 95 pertsonak sintomak dituen gertatzen direla.
- Gainazalak garbitzea.

■ Eztul egitean ukondoarekin edo erabili eta botatzeko zapi batekin estaltzea.

■ Sintomak (sukarra, arnas sintomak) dituzten pertsonak ez dute egon behar adinekoe-kin edo gaixotasun kronikoak dituztenekin kontaktuan, edo leku publiko eta jendetsuetan.

Informazio gehiago:

Osasun Sailaren web-orrian topatuko duzue: www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-be-rria/



Eskuak ondo garbitu, “are gehiago arnas sintomak dituztenek”. Aholku hau koronabirus krisiaren hasiera-hasieratik azpimarratu dute.

“Nahiz eta argazkiak nik jarri mahai gainean, Martxoak 8 denok batera egiten dugu”

Lurdes Huetak iazko martxoak 8an argazkiak ateratu zituen herrian egin ziren ekintza ezberdinak azaleratuz. Hori jendaurrean erakusteko, argazkien erakusketa antolatu du Artzabal jatetxean. Koronabirusaren beldur, itxita dago Artzabal. Ezin erakusketa bisitatu egunotan. Hala ere, elkarrizketa bere horretan plazaratzea erabaki dugu.

NOAUA! Iazko Martxoak 8ko argazkien erakusketa bat ipini duzu Artzabalen. Zure ekimena izan da ala M8 Taldearen proposamena izan al da? Nola sortu zen erakusketa antolatzeko ideia?

Lurdes Hueta. Iazko martxoak 8an ez naiz ondo gogoratzen nork esan zidan ea animatuko nintzen argazkiak ateratzera eta etxean asko pentsatzen egon ondoren atera egin nituen. Gero, argazki oso politak atera zirela ikusita eta Usurbilgo, herriko jendea agertzen zela ikusita, zergatik ez genuen egingo erakusketa bat?

Aurreko urteko maiatzean hasi ginen antolatzen Usurbilgo festetan zerbait egiteko as-



Iazko Martxoak 8 egunaren inguruko argazki erakusketa ipini du Artzabal jatetxean. Berez, martxoaren 31 arte egon behar zuen bertan ikusgai.

LURDES HUETA

“Sentitu nuen herri txikiek izugarritzko indarra zutela eta emakume asko zeudela borroka egiteko gogo eta grina horrekin”

moarekin, baina nahiz eta jendeak pentsatu erraza dela, ez da erraza hau dena antolatzea eta ez zitzaigun ondo atera. Beraz, hortxe kajioan geratu zirenez, aurtengo martxoak 8arekin pentsatzen jarri, udalaxearekin hitz egin eta azkenean, nahiz eta argazkiak nik jarri mahai gainean, martxoak 8 denok batera egiten dugu eta

nik beti esaten dut hori ez dela nire proiektua. Herriko talde batek izugarritzko festa antolatu zuen eta horregatik atera zitzaizkidan horrelako argazkiak.

Argazki asko daude hemen. Beste batzuk geratu ziren argitaratu gabe. Zaila egin al zaizu erakusketa honetarako aukeraketa egitea?

Zaila-zaila ez. Argazki asko dauden momentuan, argazki horiekin historia bat kontatzea gustatzen zait. Orduan, iazko historia hori kontatzea oso erraza egin zitzaidan. Hor dago, goizean goizeko lanak, jendea, manifestazioa, frontoi-ko bazkaria... hori da nire lana

eta lan erraza izan nuen.

Zubietarra zara. Han ere erakusketa ipintzeko asmorik al duzu?

Ez dakit. Azkenean, lehen esan bezala argazkiak nireak izanda ere, ez dira nireak. Agian udaletxean geratuko dira argazkiak edo nik gordeko ditut edo... Ez dakit.

Manifestazio jendetsua izan zen iazkoa; herrian egin den handienetarikoa. Ikusgarria izan zen. Argazkiak ateratzen ari zinenean, zer sentitu zenuen?

Nik momentu horretan ikusi nuen zenbat jende zegoen, adin ezberdinetako jendea; jende heldua, nire adineko jendea, alabak... Nik pentsatzen nuen: zer pasa da herri txiki honetan? Ni Durangokoa naiz jaiotzez, herri oso handia da eta hemen denbora pila bat daramat bizitzen eta sentitu nuen herri txikiek izugarritzko indarra zutela eta emakume asko zeudela borroka egiteko gogo eta grina horrekin. Gero, gainera, etxean argazkiak ikusi nituenean, emozionatu egin nintzen.

Bisitarien gustuko erakusketa

**NOAUA! Dagoeneko egun batzuk egin ditu erakusketak zabalik. Jendeak ze inpresio hartu du? Iritsi zaizu ikusle-
ren baten iritzirik?**

Lurdes Hueta. Normalean zer esango dizute? Ba ondo, beraien gustukoak direla. Jendea gustatzen zaio, batez ere, emakumezkoak direlako, herriko jendea agertzen delako. Jende ezaguna agertuta, ez da zaila jendea gustatzea.



“Neska gazteak eta helduagoak bertan zeudela ikusteko atera nuen argazki hau. Hala ere, gustatuko litzaidake 60 urte inguruko emakumeen argazkiren bat izatea, jende helduagoarena”.

“Gaztetan ez nuen ikusi horrelako mugimendurik, horrelako indarrarekin”

NOAUA! Martxoak 8 esanda, zer etortzen zaizu burura?

Lurdes Hueta. Indarra, askatasuna, emakumea. Ni gaztea nintzenean ez nuen inoiz ikusi horrelako mugimendurik, horrelako indarrarekin. Ni egun horretako bileratxoetan egon nintzen eta sentitu nuen hau egin behar genuela. Nire borobil berdinean oso neska gazteak zeuden eta horien hitz egiteko eta beraientzako egun hori zer zen esplikatzeko moduak harrituta utzi ninduen zuten indar horrekin, emozionatuta geratu nintzen.

Azken urteetan indar handia hartzen ari da Martxoaren 8ko mobilizazio eguna. Zu gaztea zintenean baino indartsuago ikusten al duzu egungoa?

Nik horrelako gauzak orain arte ez ditut ikusi. Ni gaztea nintzenean beti ikusten nuen nire aita amantala jantzi eta etxean amari laguntzen, baina hala ere nire garaian kalean ez zegoen horrelako mugimendurik. Nik, behintzat, ez nuen ikusi. Agian, bazegoen, baina ez dut oroitzen.



“Kolorea. Nik hor ikusi nuen emakumearen kolorea, lila. Argazki pila bat zeuden, momentu horretan asko atera nituen eta bi zeuden nire gustukoak. Baina, hau, neska erdian, lila kolorea eta Usurbilgo neskak, hauen indarra”.

“Zerbait esan behar dit argazkiak”

NOAUA! Argazkiak ateratzeko garaian, zer nahiago, pertsonak ala natura? Hiri-gunea ala mendialdea?

Lurdes Hueta. Pertsonak. Nik pertsona eta momentuak behar ditut. Niri paisajeak eta natura eta... bertan pertsona baldin badago bai, baina bestela ez dit ezer esaten eta niri zerbait kontatu edo esan behar dit argazkiak.

Aurten ere argazkiak aterako zenituen. Beste erakusketa bat antolatuko duzu material horrekin?

Bai, espero dut aurten bezala, ondo atera zaigunez eta jendearen gustukoa izaten ari denez, pentsatzen dut zerbait antolatuko dugula. Ni ez naiz joango argazkiak ateratzera erakusketan pentsatzen eta momentukoa aterako dut aldeztetik etxean nire ideia batzuk eginda. Eta erakusketa egiteko aukera badago, bikain. Oso polita da, bertsolariek ere afarian argazkiengatik zerbait aipatu zuten eta hori ere polita iruditzen zait. Izan ere, nahiz eta nire proiektua ez izan, nik ateratuko argazkiak baitira.

“Nire lehen argazki kamara altxortzat daukat”

NOAUA! Nola hasi zinen argazkilaritzan?

Lurdes Hueta. Buf! Nire txikitako bizi guztia argazkitan daukat gordeta. Nire ama gaztea zenean beti argazki kamera zintzilik zeramala gogoratzen dut. Gure etxean argazkiak beti izan dute presentzia handia, baita argazki kamerak ere. Ez naiz gogoratzen txikitako kamera bat oparitu zidan edo berea erabiltzen lagundu zidan, baina beti etxean egon den zerbait

izanda, poliki-poliki hasi nintzen eta orain dela 6-7 urte benetan hori egin nahi nuela pentsatu nuen, gustatzen zitzaidala eta horrekin aurrera egin behar nuela.

Zure lehen argazki kamera go-goan duzu? Nolako zen? Geroztik asko izan al dituzu?

Ez naiz guztiz ondo gogoratzen nolako zen. Badakit txiki-txikia eta analogikoa zela, baina nik nire lehenengo argazki ka-

mera “Olympus E 420” izan dela sentitzen dut, nik erosi nuen lehenengoa izan zena. Eta, argazki kamera hori, altxortzat daukat gordeta.

Argazkigintzako ikastarorik egin al duzu inoiz?

Bai baina konturatzen zara ikastaroekin, kamera nola erabili bakarrik ikasten duzula. Gero, argazkia ateratzeko orduan, zuk buruan ideia bat baduzu, ondo, bestela ez zoaz

inora. Baina, bai, egin nuen.

Argazkigintzari dagokionez, erreferentziarik ba al duzu? Bereziki miresten duzun argazkilaririk aipatuko zeniguke?

Bai. Hasi eta gero hemen Ivan Pérezek bere estudioa jarri zuen herrian eta ez dakit zergatik, pixkanaka, oso lagunak egin ginen eta nik Ivanekin asko ikasi nuen. Asko ez, izugarri. Bera oso kritikoa da, baina nire erreferentzia bera da, Ivan Pérez.

Ziortza: “Kanpaldia esperientzia paregabea da”

Ziortza Gazte Elkarteko kanpaldiak uztailean izaten dira. Izena aurrez eman behar da ordea. Martxoaren 22an amaituko da horretarako epea. “Izena emateko bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbide elektronikora gaztearen izen-abizenak eta zein mailatan dagoen adieraziz”. Ziortzatik aditza eman digutenez, plazak mugatuak izango dira.

NOAUA! Hasi zarete uztaileko kanpaldia prestatzen. Plazak mugatuak direnez, lehenbailehen izena ematea komeniko da, ezta?

Ziortza Gazte Elkartea. Lehenbailehen egitea baino garrantzitsuagoa da epe barruan egitea aurre izen-ematea. Ordena ez da kontuan hartuko, baina epea kanpo bidalitako eskaerak ez dira onartuko.

Aisialdiari dagokionez, zein da Ziortzak gaztetxoei egin dien eskaintza?

Urte guztian zehar antolatzen ditugu aisialdiko ekintzak gazteekin. Alde batetik urteko saioak ditugu, non hilabeteen behin ostiral iluntzetan biltzen garen DBHko gazteekin. Normalean jolasak eta antzeko ekintzak egiten ditugu, baina aurreko urtean adibidez gazteek bi proiektu solidariotan parte hartzeko aukera izan zuten, DBH3koek Caritas elkartearekin batera eta DBH4koek Mukwano Lagun elkartearekin.



Ohiturari jarraituz, Errioxako Peñaloscintosen bi kanpaldi egingo ditu Ziortza Gazte Elkartek. Aurtengo txandak hauek izango dira: Lehen (DBH 3-4), uztailak 7-19. Bigarrena (DBH 1-2), uztailak 19-29. Argazkia: Ziortza.

UZTAILEAN, KANPALDIRA

“Egunerokotasunean inguratzen gaituzten teknologiaz eta sare sozialetaz deskonektatzeko aukera bikaina da”

Errege kabalgata ere antolatzen dugu, non gaztetxoak antortxero bezala irteten diren.

Eta azkenik, kanpaldia antolatzen dugu uztailean zehar Errioxako Peñaloscintos herrian, DBH1etik DBH4ko gazteentzat. Kanpaldian ekintza ezberdin asko egiten ditugu: altxoraren bila erraldioak, ur jolasak, lakura txangoak, 3-4 eguneko ibilbideak, antzerkiak eta kantu jolasak besteak beste.

Bi txanda antolatu dituzue. Eskaintza antzekoa al da bietan?

Bai, esan genezake antzekoa dela. Lehenengoan zaharrenek parte hartzen dute; egun batzuk luzeagoa da eta ibilbideak ere pixka bat luzeagoak, baina gainontzekoan oso antzekoak dira. Begiraleok kanpaldia antolatzerakoan gogo eta ilusio berdina jartzen diegu bi txandei, bi txandak ahaztezinak izateko ahalegina egiten dugu. Egia da txandak antolatzerakoan gazteen adina kontuan hartzen dugula eta horregatik bi txandak ez direla guztiz berdinak izaten, oso garrantzitsua iruditzen baitzaigu adin tarte bakoitzerako kanpaldi pertsonalizatu bat antolatzea, aldeztatik aipatu dugun bezala esperientzia bakarra eta ahaz-

tezina izan dadin.

Joan edo ez joan, zalantzan dagoen gazteari zer esango zenioke?

Zalantzarik gabe animatzeko! Esperientzia paregabea da bizitzan behin gutxienez bizi beharrekoa. Gure egunerokoan ez dugu aukerarik izarren azpian lo egiteko edo eguneko 24 orduak lagunekin igarotzeko. Adin ezberdinetako lagunak egiteko ere aukera paregabea da kanpamendua, bertan sortzen den atmosfera bakarra baita. Gainera gaur egun gure egunerokotasunean inguratzen gaituzten teknologiaz eta sare sozialetaz deskonektatzeko aukera bikaina da. Teknologiak alde batera utzi eta naturaz eta lagunez gozatzeko.

“Peñaloscintosen egiten diguten harrera izugarria da”

NOAUA! Aurten ere, Errioxako Peñaloscintos herrian egingo dira bi kanpaldiak. Zuen presentziara ohi-tuta egongo dira dagoeneko, ezta?

Ziortza Gazte Elkartea. Bai, herria gure presentziara ohi-tuta dago, oso herri txikia da eta guztiek ezagutzen dute

elkar, horregatik guk beraiekin dugun harremana ere oso gertukoa da. Egiten diguten harrera ere izugarria da, kanpaldiko datak gerturatzen doazen heinean herrikoek gazteak ea noiz etorriko diren galdetzen digute, herrian sortzen dugun giroarekin oso gustura baitaude. Herria alaitzen dugula esa-

ten digute.

Izan ere, jolas asko herrian egiten ditugu eta bertan begiraleek eta baita gazteek ere bertakoekin hitz egiteko aukera izaten dugu. Oso harreman polita sortzen da gazteen eta herritarren artean.

Horrez gain, kanpaldian zehar egun bat hautatzen

dugu Peñaloscintoseko herritarrei beraien eskuzabaltasuna eskertzeko. Omenaldi txiki bat egiten diegu festa giroan.

Gainera, urtean zehar ere harremana mantentzen saiatzen gara eta urtero gabonetan begirale batzuk bisitan joaten gara.



Ugaitz Agirre Zapirain

Bazen behin, Üsurbil (Lehen zatia)

MCMXX. Baskon-gadetan hau-teskundeak eta zabor-jauzia mututzeko, establixi menteko hautagaiek buhameak darabiltzate bouc émissaire moduan. Agertu dira zibilizazionearen aldeko kanpaina etsenpluzkoena egiten erdaretan deituz barba-roak, indioak, nomada alproja lotsagabeak... MANEXAK! — Eta ziek españulak!

Donostiyako teniente-alkatea izan da azken Jaun-kuntia legearekin ostikoka bota dituen bere ziudadetik ez zine-glamourrik ez sosik iza-tearen delituagatik. Zubietako belazeetan egin dute euren kanpamentua. Kauterek piz-tuta sua oilo-zopa egiteko, koipe usaina beharrean, sudurrean sulfuro eta dioxina. “Hi Pitxu, zer egin duk? As-tazakila!” Baina Pitxuk beti badu hitzik erantzuteko: “Hor goiko tximinian erretzen dute dena, sardina hezurak eta ez dabilztan tramankuluak”.

Kabana denen buru, oroitu die zera: “Agian egun batez jeikiko dira egiazko xiberutarrak!” “Gu xiberutarrak gira?”, Pitxuk. “Gu egiazko eskualdunak gira!”, Kabanak haserre eta pentsatzen geratu da izarrei begira establixi-menta nola garaitu.

Biharamunean, Usurbilgo herrira hurbildu dira artista



“Birus zital baten berri ematen dute, ekialde urruneko herrialdeetatik buhameek ekarria konspirazioa bailitzan”.

UGAITZ AGIRRE

“Eta herritarrak dantzarekin

itsututa daudela, gainontzeko artistek hartu dute udaletxea eta Pitxuk bere burua izendatu du Üsurbil, Zuberoako 42. udalerriko alkate berri”

denak barrikadan xirula 6/8 sol-la-si-do-re-re-mi-re-mi... eta usurbildarrak gerturatu dira haiengana eta eman die sagardoa zintzurra busti dezaten eta txorizo egosi muturrak eta naphar-omeletak indartu daitezten. Eta biba-Xiberuak eta biba-euskaldunak eta biba-gutarrak eta biba-bibak artean bralea beti aitzina xingle-lauetan, pika-ta-xingle, pika-ta-doble, aitzina-pika-lauetan, xingle-lauetan, ezker, eskuin, ezker-ta-hiru, ützul-eta-hiru, ezker, eskuin, ezker-ta-hiru,

ützul-eta-hiru, aitzina-pika-bietan, xingle-lauetan, pika-ta-xingle, pika, kontrapasa-ta-fini! Ua!

Xirula orduan 2/4 sol-la-si-do-re-re-sol-fa-mi-re-re... “Basuana! Basuana!” “Buah txabal! Ze ona!” “Baño ez da iyoko? Ordun ez da dantza ona” “Zal-di-yakin iyoko a?” “Buah! Ze pena puxkau in zayola...” Eta herritarrak dantzarekin itsututa daudela, gainontzeko artistek hartu dute udaletxea eta Pitxuk bere burua izendatu du Üsurbil, Zuberoako 42. udalerriko alkate berri.

Gipuzkoako batzar nagusietan gerra deklaraziotzat hartu dute, eta pentsatuz direla zenturioi —zer zenturioi?—, PRINTZIPE, mikeleteak errekutatzen hasi dira herri traidorea inbaditzeko. Egunkari ofizialistek erreportaje deritzoten iragarkiak argitaratzen dituzte inbasioa errekonkista deituz nagusitasun paternalista mora-

lizatzaile batekin. Oka egiteko gogoia dator jabetzean bat zer nolako zaborra den begiek irentsi dutena.

Denaren funtsa gezurrean dagoela ohartuta, eta hauteskunde kanpainaren erdian “erdia ustel” portzentai positiboegia dela jakinda, informazio-kanpaina paranoia kolektiboaren ernamuin bihurtu dute Üsurbil mikeleteen dibi-sio ezberdinek inguratua dutelarik. Birus zital baten berri ematen dute, ekialde urruneko herrialdeetatik buhameek ekarria konspirazioa bailitzan. Urrutirudiko berrietan hori eta establixi mentekoen kanpaina besterik ez dira agertzen. Ondoren kirolak, batez ere hanka-pilota eta esku-pilota. Beti pilota. Gero dago esaten ez dena. Bitartean, Pitxuk gidatutako üsurbildarrak erresistentzian jarraitzen dute Matalazen hitzak abestuz, egunetik egunera zerua beltzago eta kiratsa gainetik kendu ezin bada ere.

Gipuzkoako agintariak nazkatzen hasi dira gerra-ekintzen eraginkortasun eza birusaren paranoiak jada estaltzen ez duelako. Üsurbildarren arma magiko baten inguruko zurrumurruak ere zabaldu dira. Eta argitaratu gabeko inkestaren emaitza penagarriak eskutan, SS operazioa martxan jarri dute bunker ezkutu batetik.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroztz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Bakean dagoenari gerra, ehungarrenenez

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileen Bakean Dagoena Bakean Utzi ikuskizuna ehungarren emanaldira iritsi zen aurreko astean. Umorea, generoa eta euskara dira ardatz nagusiak.

Lehenbiziko aldiz taularatu zutenetik, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai Euskal Herriko txoko ugaritan barrez jarri dute jendea. Usurbilen ere izan ziren, Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak antolatuta. Aurreko astean 100. emanaldia eskaini zuten Bilboko Kafe Antzokian. Hori gutxi balitz, emanaldi berri bat prestatzen hasiak dira.

“Emakumeok ere umorea egin dezakegu”

Mirarik eta Idoiak aitortzen dute ikuskizunaren izenburua gezurra dela: “Justu kontrakoa da bilatzen duguna, hau da,



Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai Euskal Herria zeharkatu dute Bakean Dagoena Bakean Utzi ikuskizunarekin. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

UMOREAREN FUNTZIOA

“Umorea gauzak iraultzeko oso tresna eraginkorra da, eta hori baliatu nahi dugu barrearen bidez hausnarketa sustatzeko ere”

bakean dagoena bakean ez uztea. Izan ere, gauza batzuk ez badituzu astintzen ez dira aldatzen, eta horixe da lortu nahi duguna, aldaketa bat. Emakumeok umorea egin dezakegula frogatu nahi dugu alde batetik, oraindik ere gizonzkoen munda baita hau eta aurreiritzi

asko baitago”.

“Betaurreko moreak jantzita ateratzen gara”

Umorearen bidez hain zuzen, gai konkretu batzuez hitz egin nahi dute, “emakumeen gauzak izateagatik askotan ezkutuan egoten baitira (gorputzak, amatasuna, parranda, hilekoa,...). Umorea kritika egiteko eta gauzak iraultzeko oso tresna eraginkorra da, eta hori baliatu nahi dugu barrearen bidez hausnarketa sustatzeko ere. Betaurreko umoreak jantzita ateratzen gara, baina argi geratu dadila gizonentzat ere badela ikuskizuna”. Hain zuzen ere gizonzkoak etortzea ere bada euren helburua, “gure gauze-kin ere ondo pasa dezaketela erakutsi nahi dugulako. Azkenik, hori guztia euskaraz eta euskararekin jolastuz egingo dugu, guretzat hori baita gure bizitzeko eta umorea egiteko hizkuntza”.

“Opari bat izan da guretzat”

100 saio egin ondoren ilusioa ez dutela galdu aitortu digute bi artistek: “Bakean Dagoena opari bat izan da gu biontzat. Aspaldidanik egin nahi genuen elkarrekin umorearekin lotutako zerbait eta bi urteren ondoren amets bat betetzen ari garela esan dezakegu. Jende aurrean jartzen garen aldiro gozatzen dugu, egin nahi duguna egiten ari garelako, gozatu egiten dugulako eta jendearen erantzuna zoragarria izaten ari delako. Emanaldi bakoitza desberdina izaten da eta beti izaten dugu inprobisatzeko tarte ere”.

Emanaldi berri bat begi-bistan
Bakean Dagoena Bakean Utzi-
rekin oso gustura daude baina
dagoeneko hasi dira beste ema-



naldi bat prestatzen: “Umoregile bezala definitzen dugu gure burua eta bakarriketen formatu honekin oso eroso sentitzen gara. Horregatik, dagoeneko prestatzen hasi garen emanaldi berriaren formatua ere berdintsua izango da”.

Martiarena-Torregarai biko-teak adierazi digunez, “asko gozatzen dugu sormen lanarekin, eta gogoz gaude emanaldi berria erditzeko. Ea Bakean Dagoenak eman digun poza errepikatzen dugun bigarren-goarekin ere!”.

Usurbilen hasi zen dena

2017ko Euskararen Egunean igo ziren oholtzara lehen aldiz. “Euskarari buruzko saioa egin genuen osoki”. Esperientzia izugarri gustatu zitzairen “eta aspaldidanik buruan geneukan proiektua diseinatzen hasi ginen, euskaraz gain genero ikuspegia gehituz”, Idoia Torregarai 2018ko azaroan eskaini zigun elkarriketan aitortu zigun moduan. “Behin hori eginda, Lanku kultur zerbitzuekin harremanetan jarri ginen eta ordutik beraien bidez ari gara Euskal Herri osoan saioak egiten”. Ehungarren emanaldia Bilboko Kafe Antzokian eskaini berri dute. Datozen asteetan ere, emanaldi bete agenda izango dute bi artistek.

Egungo beharretara egokituko den udal etxebizitzaren esleipen modu berria

Udalak egun alokairu sozialera bideratzen dituen 19 etxebizitza ditu. 12 Txaramunton, beste 7 Agerialde pareko “Maixu-etxe” izenez ezaguna zaigun Gernika ibilbidea 13ko eraikinean. Eraikin bereko zortzigarren pisua erreserbatua du Udalak, larrialdi egoerarako. Honenbestez, gaurko alokairu sozialerako udal jabetzako 19 etxebizitza ditu. Laster bi gehiago; Santuenean egokitze lanetan dituzten bi pisu. Udal bizilekuok alokairu sozialera bideratzen urteak daramatzaten arren, “premiak bere horretan darrai zoritxarrez”, diote udal gobernu taldeak.

Bizilekuok orain arte zozketa bidez bost urterako esleitzen zituzten. “Modu horrek hainbat arazo ekartzen zituen” ordea, udal gobernu taldeak otsailaren 27ko udalbatzaren osoko bilkuran gogorarazten zuenez. Hasteko, “ez zien unean uneko beharrei erantzuten”. Horrekin batera, “etxebizitza eskubidea zori kontua izatea ez zaigu justua iruditzen”. Bestalde, orain arte etxebizitza hauek husten joan ahala, aurrez izena eman eta itxarote zerrendan zirenei esleitzen zitzaizkien, baina pisuok esleitutako garaian osaturikoa izanik, zerrenda hau zaharkitua geratzen zen.

Honenbestez, esleipen modu hau aldatzea proposatu zuen udal gobernu taldeak otsailaren 27ko udalbatzarrean,



Puntuazio sistema batekin erabakiko da, eta ez zozketa bidez orain arte bezala.

MODU JUSTUAGO BAT

“Etxebizitza eskubidea zori kontua izatea ez zaigu justua iruditzen”. Honenbestez, esleipen modu hau aldatzea proposatu zuen udal gobernu taldeak azken udalbatzarrean

Erregistroaren araudia ere onartua

Aipatu moduan, aurrerantzean udalaren jabetzakoak diren alokairu sozialeko etxebizitzaren esleipen prozesuan parte hartzeko eskatzaileen udal erregistroan izena eman beharko da. Erregistro honen araudia

Haur Eskolaren kontratu luzapena

Usurbilgo Udalak eta Udarregi Ikastolak 2008an sinatua zuten “Haur Eskolako lokala eta instalazioen erabilpena eta zerbitzuaren kudeaketa arautzen duen” hitzarmena urtebetez luzatzea erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz, EHBilduren aldeko bozkekin eta EAJ zein PSE abstentututa, otsailaren 27an egin zuen osoko bilkuran.

2020ko abuztuan 12 urteko hitzarmenaren iraupena iraungiko da. Alde bakarrez urtebetez luzatzeko aukera dago. Beñat Larrañaga EHBilduren zinegotziak aurreko udalbatzarrean adierazi zuenez, bi aldeek (Udalak eta ikastolak) adostu zuten egungo hitzarmena beste urtebetez luzatzea, eta berria prestatzeko lanketa abiatzea. Berria, 2021. urte hasiera ingururako prest izatea aurreikusten dute.

Beharrezko zerbitzua

Urte hauetan guztietan eskaini den zerbitzuaren balantze txiki bat ere plazaratu zuen udal gobernu taldeak. Ikasle kopuruan izan den bilakaera batetik. 0-3 urte arteko 140-150 ume izatera heldu zen Haur Eskola. Azken urteotan ordea, 40-50 ingurura murriztu da. Beherakada faktore anitzengatik gertatu da, tartean, jaiotze-tasan izandako jaitsieragatik. Oro har, “zerbitzua ondo baloratua” dagoela nabarmendu zuten udal gobernu taldeak egin izan duten galdetegietan. “Beharrezko zerbitzu bezala ulertzen da”.

EAJ, eskola publikoaren alde

EAJ-k abstentituko zela iragarri zuen, “eskola publikoaren aldekoak” direla argudiatuta. Ikastolari esleitu egin arren, Haur Eskola udal zerbitzu publikoa dela gogorazi zien alkateak.

ETXEBIZITZA

Salgai

Usurbilen, kaxkoo eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konprometua. 661115222.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoak 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko

taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetoako kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetoan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar

baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburueterako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk



Zorionak Nadeth!!!

Martxoaren 12an 12 urte bete zenituen. Muxu asko etxeko guztien partez.

gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa

ta lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxe-

ko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinara Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zalanztza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 19	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 20	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 21	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 22	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 23	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 24	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 25	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Martxoak 19 - Martxoak 29

Osteguna 26	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 27	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 29	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda martxoa

20 ostirala

- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Santueneko Gure Elkartean, BERTAN BEHERA.
- Lurdes Huetaren erakusketa Artzabalen, BERTAN BEHERA.

21 larunbata

- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Santueneko Gure Elkartean, BERTAN BEHERA.
- Lurdes Huetaren erakusketa Artzabalen, BERTAN BEHERA.
- Iñorkiñak taldekoen bideoklip grabazioa Txokoalden BERTAN BEHERA.

22 igandea

- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Santueneko Gure Elkartean, BERTAN BEHERA.
- Lurdes Huetaren erakusketa Artzabalen, BERTAN BEHERA.
- Munduko dantzen erakustaldia Sutegin 17:45ean BERTAN BEHERA.

Ziortzako kanpaldirako izen-ematea amaitzear da

Ziortza Gazte Elkartek antolatzen duen kanpaldia uztailan izango da baina orain da izena emateko garaia. Igande honetan amaituko da horretarako epea.

Bi txanda

- 1. Txanda (DBH 3-4): Uztailak 7-19.
- 2. Txanda (DBH 1-2): Uztailak 19-29.

Izen-ematea, emailaz

Izen-ematea martxoaren 22ra bitarte egongo da zabalik. "Izena emateko bidali mezua bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbide elektronikora gaztearen izen-abizenak eta zein mailatan dagoen adierazten." Ziortzatik aditzera eman dutenez. Plazak mugatuak izango dira.



Plazak mugatuak izango dira.

ziz", Ziortzatik aditzera eman dutenez. Plazak mugatuak izango dira.

Datozenak

Martxoaren 29an ordu aldaketa: goizaldeko 2:00etan, 3:00ak izango dira

Adi, erlojuak eguneratzeko ordua heldu da berriz. Datorren astean, udako ordutegira egokitu beharko ditugu ordulariak. Martxoaren 28an, larunbategitik iganderako goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira. Eguna luzatzen eta gaua pixkanaka laburtzen joango zaigu hurrengo asteetan.



Eguna luzatzen eta gaua pixkanaka laburtzen joango zaigu hurrengo asteetan.

Kids Zone haurrentzako eskaintza bertan behera utzi dute Urbilen

Urbil merkataritza gunea, Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzak Covid-19 birusaren hedapenari buruz emandako gomendioak jarraituz, "Kids Zone haurrentzako esparruaren jardura bertan behera uztea erabaki du, eta ez du haurrentzako ekitaldirik programatu dagoen adierazten".

Urbilen lehentasuna "bezeroen, langileen eta erabiltzaileen osasuna da, eta, beraz, hori bermatzeko behar diren neurri guztiak hartuko ditu".

Baimendutako saltokiak

bakarrrik utzi ditu irekita Urbilek

Araudi ofizialari jarraituz, jardura nor-

mala mantenduko da saltoki honetan: elikagai eta oinarritzako produktu, hala nola optika, produktu higieniko, ilea-paindegi, automobilgintzako erregai, telekomunikazio ekipamendu eta supermerkatuetan. "Gune horiek irekita egongo dira gure erabiltzaileei ahalik eta zerbitzurik onena emateko".

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL



Koronabirusa

prebenitzeko

GOMENDIOAK

1

SARRI GARBITU
ESKUAK URAREKIN
ETA XABOIAREKIN

2

EZTUL EDO
DOMINISTIKU
EGITEAN AHOA ESTALI
BESAURREAREKIN EDO
MUKIZAPI BATEKIN

3

ERABILI ETA BOTATZEKO
MUKIZAPIAK ERABILI,
ETA, ONDOREN,
ZAKARRONTZIRA
BOTA

4

ARNAS-SINTOMAREN
BAT IZANEZ GERO ETA
ARRISKU-EREMU BATERA
BIDAIATU BADUZU, ETXEAN
GERATU ETA DEITU
900 20 30 50

Mukiak kendu
edo doministiku
edo eztul egin
ondoren



Komunera
joan ondoren



Animaliekin
kontaktua
izan ondoren

Elikagaiak jan
edo manipulatu
aurretik



Gaixo dagoen
norbait artatu
aurretik eta
ondoren



Esku zikinak
dituzun
guztietan



LAGUNTZA BEHAR DUZU? LAGUNTZEKO PREST ZAUDE?

Covid19 birusaren aurkako prebentzio neurriak direla eta, zenbait usurbildar boluntariok eta udalak elkarlanean Herriarren Babes Sarea osatu dute.

Boluntario sare horrek bere burua eskaini du 65 urtetik gorako herritarrei, elbarritasunen bat dutenei, haurren zaintzarako kontziliazio arazoak dituztenei, edo gaixorik edo isolatuta dauden herritarrei laguntzeko. Hiru behar zehatzi erantzuteko balioko du sareak:

1. haurren zaintza bermatzeko
2. 65 urtetik gorako herritarrei oinarritzko elikagaiak edo
3. ...sendagaiak erosten laguntzeko laguntza

BOLUNTARIOA BAZARA

Sar zaitez Whatsapp taldera, udalaren sare sozialen bidez,
@usurbiludala Twitterren / Facebooken / Instagramen

Bete galdetegia, zertarako prest zauden eta zure disponibilitatea jakiteko.

ESKATZAILEA BAZARA

Deitu **688 634 512** telefonora, eta adierazi zure datuak eta beharrak.

